

# Enpresan ingurumena kudeatzeko tresnak, erosketa berdea eta ingurumen-fiskalitatea



Inolako zalantzarik gabe, ingurumena zaintzea eta iraunkortasunez erabiltzea aldagai lehiakorra da enpresentzat, sinesgarritasun zein irudi soziala ematen dizkie-eta. Bazenekien zerga-pizgarriak daudela ingurumenaren gaineko eragin kaltegarriak murrizteko inbertitzen duten enpresentzat?

Enpresak ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzen hasi zirenetik, gero eta neurri eta tresna gehiago ezarri dira ingurumena hobetzeko.

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## AGENDA 2030



 **GARAPEN  
IRAUNKORRERAKO  
HELBURUAK**



*Egunero-egunero, eragina dugu inguruko munduan.  
Gure ekintzek egoera aldatu dezaketenez, zer  
egingo dugan erabaki behar dugu.*

*Jane Goodall*



## Ingurumena kudeatzeko sistemak

Borondatezko sistema da ingurumen-babes handia lortu eta ingurumenaren arloko erantzukizunak betetzen dituztela ziurtatu nahi duten enpresentzat. Lanerako zenbait prozedura eta ohitura dira, eta, bertan, lehengaien jatorria eta ingurumen-ezaugarriak edo produktuen zein zerbitzuen erosketa hartzen da kontuan, ekoizpenaren nahiz lan administratiboen esparruan.

Enpresan ingurumena kudeatzeko sistema ezartzen denean, ingurumenaren kudeaketa onaren berma fidagarria eskaintzen zaio bezeroari, garapena iraunkorra dela ziurtatzeko. Ingurumena kudeatzeko sistemaren zenbait eredu dago:



Nazioarteko Normalizazio Erakundeak (ISO) argitaratutako nazioarteko araua da, eta ingurumena kudeatzeko benetako sistema (IKS) ezartzeko eman beharreko urratsak zein diren azaltzen da bertan.

2015ean, azken bertsioa jarri da abian, eta honako hauxe kontuan hartzea izan da berritasun nagusia: bizi-zikloaren ikuspegia, arriskuen kudeaketa edo ingurumenaren arloko garapenaren hobekuntza.



Arau horren ezarpenaren eta ziurtapenaren osagarri, beste ISO arau batzuk ere ezarri daitezke: kalitatea kudeatzeko sistema (ISO 9001), segurtasunaren arlokoa, gizarte-erantzukizunaren arlokoa... Gainerako guztiak bezala, ISO 14001 araua **etengabeko hobekuntzarako PHCA zikloan** dago oinarrituta (Plangintza prestatzea, Egitea, Egiatzatzea, Jardutea).

### 1 PLANGINTZA

Emaitzak lortzeko beharrezkoak diren helburuak eta prozesuak ezartzea. Prozesuaren jarraipena egiteko neurtu beharreko faktoreak zein diren zehaztea.

Behar besteko zuzenketak eta aldaketak proposatzea, prozesua etengabe hobetu dadin.

### 4 JARDUTEA

### 2

### EGITEA

Plangintza zehaztutakoa ezartzea hobekuntzak lortzeko.

Ezarritako sistema ondo doala egiatzatzea. Produktuen eta prozesuaren jarraipena egitea.

### 3

### EGIAZTATZEA





Ingurumena kudeatzeko sistema da, Europako Batasunaren babespean dago eta enpresen zein erakundeen ingurumen-jokabidea ebaluatzeko, hobetzeko eta jakitera emateko aukera eskaintzen du.

Arlo publikoko edo pribatuko eta edozein sektoretako (irakaskuntza, eraikuntza, kudeaketa...) enpresak edo erakundeak sistema hori ezarri ahal izango du bere ingurumen-jokabidea hobetzeko.

*info +*

EMAS Europako Batasunean baino ez da ezartzen, eta ISO 14001 araua baino zorrotzagoa da. EMAS sistema aukeratzen duten enpresek betebeharrak zorrotzagoak bete behar dituzte: enpresaren hasierako ingurumen-berrikuspena egitea, ingurumena hobetzeko programari buruzko informazioa jendaurrean ikusgai jartzea...



Ingurumena ziurtatzeko asmoz Eusko Jaurlaritzak IHOBEn bidez eskaintzen duen sistema da.

Horri esker, epe laburrari begira beste sistema batzuk ezarri eta ziurtatu ezin dituzten enpresek edo erakundeek lehen aipatutakoak bezalako IKS eduki ahal izango dute.

Ekoskan ziurtagiriaren bidez, ingurumena hobetzeko plana ezarriko da, baina, horrez gain, kuantifikatu daitezkeen benetako emaitzak ere lortuko dira hobekuntzari begira.

*info +*

*"IKSak ekoeraginkorragoa eta lehiakorragoa izaten laguntzen dio enpresari"*

## Ekodiseinua, diseinu iraunkorraren alde

Produktu eta zerbitzu guztiek eragin kaltegarria dute ingurumenean, ekoitzi, erabili edo desagerrarazi egiten direnean.

Ekodiseinatzean, produktuaren edo zerbitzuaren proiektua egiten den unean bertan zehazten da zein diren euren bizi-zikloko fase guztietan ingurumenaren gainean sorrarazi ditzaketen eragin guztiak. Horrela, ahalik eta gehien murriztu daitezke, produktuen zein zerbitzuen kalitatea eta funtzionaltasuna galdu gabe.

Ekodiseinuak ingurumenaren aldagaia kontuan hartzen du produktuaren ziklo osoan, lehengaia, ekoizpena, bilgarria, banaketa, birziklapena... aintzat edukita, harik eta bizitza baliagarria amaitu arte.



## Etiketa ekologikoak

Etiketa ekologikoek bermatu egiten dute etiketa horiek daramatzaten produktuek ingurumena errespetatzen dutela, euren bizi-zikloko zenbait faktoreri dagokienez (lehengaitik hasita azken helmugaraino). Produktuari buruzko benetako informazio objektiboa eskaintzen digute kontsumitzaileoi.



Europako ekoetiketa ingurumenaren arloko jarduerari eta kalitateari begira eskakizun zorrotzenak betetzen dituzten produktuei ematen zaie, organismo independenteen kontrol zorrotzak gainditu ondoren.

Borondatez eskatu daiteke era guztietako produktuetarako (tresna elektrikoak, etxetresna elektrikoak, paper-gauzak, garbiketa, arropak...). Ez dira elikagaiak eta farmaziako produktuak kontuan hartzen.

Derrigorrezko eta borondatezko beste etiketa batzuk ere badaude arlo hauetan: nekazaritzako elikagaiak, produktu toxikoak, eraginkortasun energetikoa, ontziak eta bilgarriak, karbono-aztarna, kudeaketa-sistema...

*Ekoetiketek enpresen ingurumen-konpromisoa jartzen dute agerian.*



## Enpresetako erosketa berdea

Prozesu honen bidez, enpresek ingurumenaren osagaia kontuan hartzen dute ondasunak erosteko eta zerbitzuak kontratzeko erabakiak hartzen dituztenean.

Produktuaren edo zerbitzuaren ingurumen-aldagaiak erabili edo erosten diren materialekin eta produktuekin daude lotuta, baita kontratuak betearazteko prozedurekin eta hornitzaileen zein ekoizleen ingurumen-jokabidearekin ere.



*“Administrazio publikoak eredarriak dira erosketa eta kontratazio berderako prozesuetan. Hain zuzen ere, funtsezkoak dira merkatuaren iraunkortasunerantz dagoen joera bideratzeko orduan”*



Enpresei erosketa berdea diseinatzeko aholkularitza ematen dieten laguntza-erakundeak daude.

## NOLA JAKIN ZEIN DIREN GURE ENPRESARENTZAKO INGURUMEN-PRODUKTU ONENAK?



Produktuen ingurumen-etiketek gure enpresen ingurumen-premietara ondoen egokitzen den produktua aukeratzeko laguntzen digute.



Zenbait argitalpenetan jakitera ematen diren tresnak oso lagungarriak dira, gure enpresen erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-faktoreak kontuan hartzen zer abantaila lortzen diren zabaltzeko orduan.

## Benetan merezi du berdean jardutea

*"Ingurumen-konpromisoaren bidez, enpresak hobera egiten du, eta zerga-abantailak lortzen ditu"*

### ENPRESETAKO EKOERAGINKORTASUNA

Enpresan bertan, baliabideak hobeto erabiltzea eta ingurumenaren zein gizartearen gaineko eraginak murriztea da helburua.


Merkatuan bertan ekoberrikuntza erdiesteko, Europako Batasunak enpresei eskatzen die ekoizpenean bertan teknologia garbiagoak erabiltzeko, aurrezkirako zein lehengaien hornikuntzarako neurriak ezartzeko, erosketa berdea abian jartzeko...

Gure enpresaren balioespen integrala egitea oso lagungarria izango da etengabeko hobekuntzarako prozesuak ezartzeko eta ekoeraginkortasun handiagoa lortzeko orduan.

Gure enpresa-jarduerak ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen arloan dituen emaitzak orekatzen badira, merkatuan dugun irudi soziala hobetu ahal izango dugu.



*Aurrezkitza Zerbitzuak  
Diseinua Ekoeraginkortasuna Kostuak  
Erosketa Berrikuntza Teknologia  
berdea*



*"Benetan merezi du berdean jardutea"*

Ingurumena behar bezala kudeatuz gero, zenbait abantaila lortuko dugu:

1. Enpresak irudi hobea izango du bezeroen eta gizartearen aurrean.
2. Ingurumen-zehapenak jasotzeko arriskua txikiagoa izango da.
3. Baliabideak aurreztu eta kostuak murriztuko dira.
4. Negozio-aukera berriak sortuko dira: nazioarteko merkatu berdea eta erosketa publikoa.
5. Zerga-kenkariak lortuko dira.
6. Ongizate orokorra erdietsikoda (norberarena).

## INGURUMEN-FISKALITATEA

Zerga-fiskalitatearen bidez, zenbait jarduketa ezartzen da zerga-sisteman, eragile ekonomikoek ingurumenaren arloan duten jokabidea aldatzeko. Horretarako, ingurumenaren kalterako diren jokabideak zigortzen dira (zergak, tasak...), eta ingurunearen onurarako direnak suspertzen dira (kenkariak, zerga-arinketak...).

Bizkaian, Sozietateen gaineko Zergan, zenbait kenkari ezartzen dira enpresek ingurumena hobetzeko, artatzeko, garapen iraunkorra sustatzeko eta iturri energetikoen ustiapen eraginkorra lortzeko egiten dituzten gastuetan. Bi kenkari-modalitate daude:

%30

Jardueraren ingurumen-eragina murrizteko eta zuzentzeko prozesuan ondorio zuzena duten ekipamendu eta material berrietan egindako inbertsioen %30eko kenkaria, betiere, **Teknologia Garbien Euskal Zerrendan** agertzen badira.

- Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharra dago, egindako inbertsioak aipatutako zerrendako ekipamenduekin bat datozela adierazteko.

%15

Aktibo berrietan egindako inbertsioen %15eko kenkaria (oso garrantzitsua: kenkari-modalitateak bateraezinak dira euren artean):

1. Lurzoru kutsatuen garbiketa (Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria aurkeztu beharra dago).
2. Honako hauxe helburu duten proiektuen betearazpen aplikatua:

info +

### • HONDAKINAK

Hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta baliaraztea.

### • URA

Uraren kontsumoa gutxitzea eta hobeto araztea.

### • ENERGIA

Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa bultzatzea.

### • MUGIKORTASUNA

Enpresetan sortutako joan-etorrietan mugikortasun eta garraio iraunkorrak sustatzea.

### • ONDARE NATURALA

Konpentsaziorako edo borondatezko neurriak ezartzea, eremu naturaletako ingurumena biziberritzeko.

*Ikuspegi berdea*

*"Kenkari horiek lortzeko, Ingurumeneko Egokitasun Ziurtagiria eduki beharko da"*

## Nola hobetu neure enpresa eta ingurumenari lagundu

Gero eta enpresa gehiagok ezartzen dituzte ingurumen-neurriak, ingurumenaren gaineko kontzientzia handiagoa dutelako, enpresaren irudia hobetu nahi dutelako, zenbait neurri egokiek eskaintzen dituzten kenkariak lortu nahi dituztelako edo ingurumenaren kalterako diren jarduketekin lotutako zigorrik jaso nahi ez dutelako. Baduzu egoera aldatzerik. Zuk zeuk erabaki:

### EGIN KLIK ETA HOBETU





# i

## Gehiago jakiteko

### Arautegia

- ↘ Euskal industriarentzako ingurumen-legeriaren eskuliburu erabilgarria.

### Informazio interesgarria

- ↘ Bizkaiko ingurumen-fiskalitatea.
- ↘ Europa 2020. Hazkuntza adimendun, iraunkor eta berritzailerako estrategia.
- ↘ Ekodiseinua.
- ↘ Euskadiko teknologia garbiak.
- ↘ Ekoskan.
- ↘ AENOR. ISO 14.001
- ↘ EMAS.
- ↘ Basque Ecodesign Center.
- ↘ Ekolabela.
- ↘ Ekoeraginkortasunerako Programa.
- ↘ Euskadiko 2020ko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa.